

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure baserri etxea aisialdi aukera bat izango da. Baserri etxe honetan baserri bizimodua bizitzeko aukera zabala eskainiko da. Aisialdi leku hau adin guztietarako zabalik egongo da, non, familia edo pertsona bakoitzak nahi duen momentuan apuntatu edo bisita dezaken.



Baserri etxean naturarekin eta baserri munduarekin murgiltzeko aukera izango duzu, baita adin guztietako pertsonekin erlazionatzeko aukera emango den. Baita familiek egunak batera pasatzeko aukera ezin hobea, ekintza ezberdinak burutzen.

Adin guztien artean harremanak sortzeko aukera oso ona da, balore desberdinak landuz, hau da, berdintasuna, errespetua, arduratsua izaten ikasten...

Hainbat ekintza desberdin egingo dira. Alde batetik, baserrian egindako tailerrak (xaboia, plastilina edo xaboia egiteko tailerrak, ortuan ekoiztutako gauzak) , eskulanak egin eta beste alde batetik, antolatutako txangoak baserri ingurutik.